



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko ekainaren 15a

79. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen erreko-  
nozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa. Aurkeztutako zuzenke-  
tak (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei erreko-  
nozimendua adieraztekoa. Akats zuzenketa (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Osasunaren Lurralde arteko Batzordean one-  
ts dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da  
zenbait neurri har ditzan aipatu gaixotasuna dela-eta. Osasun Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gobernu Kontseiluan erabaki dezan “Bakea  
eta Askatasuna Sahara Mendebaldean” taldeartekoen XXVI. Konferentzian onetsitako adierazpena babes-  
tea. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak  
izendatzea (12. or.).
- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M. izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako Nafa-  
rroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea  
(12. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Legea, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko ekainaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea,  
Lagun egiteko animaliak Nafarroan  
babeesteari buruzko apirilaren 4ko  
19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa**

**HITZAURREA**

Lanerako, laguntzarako edo eginkizun sozialerako animalien erabileraren errealitate soziala eta funtzionalak arazo larriak aurkitzen ditu bere jasangarritasun eta garapenerako, modu orokorrean sartzan baitira lagun egiteko animalien babeserako araudietan —Espainiak 2017ko ekainaren 23an berretsitako Lagun Egiteko Animalien Babesari buruzko Europako Hitzarmenaren arabera, animalia horiek dira gizakiak dauzkanak edo gizakiak edukitzeko bideratuak, bereziki bere etxean, aisialdirako eta haren konpainia izateko—; izan ere, haien jarduera nagusia ez da konpainia egitea eta ez dira etxean bizitzen.

Gainera, lanerako, laguntzarako edo eginkizun sozialerako animaliak erabiltzen diren jarduera askotan bada jada araudi sektorial joria (hala nola zezen ikuskizunetan parte hartzen duten animaliak, hasierako testuan salbuetsi zirenak).

**Artikulu bakarra.** Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea aldatzea.

Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legeak aldaketak hauek izanen ditu:

Bat. 4. artikulua honela idatzita geldituko da:

“4. artikulua. Aplikatzekoak diren baztertzeak.

Lege honen aplikazio-esparrutik baztertuta daude:

1. Ekoizpenerako animaliak, foru lege honen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

2. Basa faunako animaliak, ehizakitzat hartutako basa faunako espezieak, subespezieak eta populazioak, eta araututako ehiza-jarduera.

3. Zezen-ikuskizunetan erabiltzen diren animaliak.

4. Esperimentaziorako eta beste xede zientifiko batzuetarako erabiltzen diren animaliak.

5. Parke zoologikoetan dauden animaliak”.

Bi. 5. artikulua 3. apartatua honela agertuko da idatzita:

“3. Lanerako animaliak, laguntzakoak edo eginkizun soziala edo kirolekokoak dutenak: jarduera edo xede jakin baterako erabiltzen diren lagun egiteko animaliak; esate baterako, zaintzarako txakurrak, artzain-txakurrak, laguntza-txakurrak, txakur biltzaileak, erreskate-txakurrak eta segurtasun indar eta kidegoek erabiltzen dituzten txakurrak”.

**Hiru.** 5. artikuluari 3. bis apartatu berri bat eransten zaio. Honela geldituko da idatzita:

“3. bis. Ehizarako txakur edo hudoak: lanerako animaliak dira, araututako ehiza-jarduera batean jabearen laguntzarako erabiltzen direnak”.

**Lau.** 6. artikulua 6. apartatua honela agertuko da idatzita:

“6. Behar diren neurriak hartzea animalien ugalketa kontrolgabea saihesteko, foru lege honetan araututakoarekin bateragarria den edozein kontrol-metodo erabiliz. Ugalketa kontrolgabetzat jotzen da jabeak nahita ez eragindakoa.

Beste txakur edo katu batzuekin kontrolik gabeko kontaktua izan dezaketen txakur eta katuek esterilizatuta egon beharko dute.

Honako animalia hauek ez dira joko beste animaliekin kontrolik gabeko kontaktua izan dezaketen txakurtzat: 5. artikulua 3. eta 3. bis apartatuetan definituriko animaliak, baimendutako ehiza-jardueretan edo ehizarako entrenamenduetan parte hartzen ari diren bitartean, edo artzain-txakurrak beren eginkizuna betetzen ari direnean”.

**Bost.** Honela geratzen dira idatzita 7. artikuluko 14. 15. eta 26. apartatuak:

“14. Haiek hezteak beren oldarkortasuna gara dezaten edo haiek borroketarako prestatzea, bai

eta haiek trebatzea edo haiei lan eginaraztea halako moduz non haien osasuna edo ongizatea kaltetuko baita, beren indar edo gaitasun naturalak gaindiazteagatik edo beharrezkoak ez diren lesio, min, sufrimendu edo larridura eragiten dieten bitarteko artifizialak erabiltzeagatik. Salbuesita geratzen dira 5. artikulua 3. eta 3. bis apartatuetan definituriko animaliak haien defentsa-eginkizunei edo ehizarako gaitasunei dagokienez, salbu eta jarduerak hori dela-eta justifikatu gabeko lesio, min, sufrimendu edo larridura eragiten bazaie.

15. Animaliak behartzea ikuskizun, jai herrikoi, azoka, erakusketa, lehiaketa, erakustaldi, filmaketa, publizitate-xedeetarako argazki- edo zinemagintza-saioetan edo antzeko beste edozein jardueratan parte hartzera —ehiza-jardueretako azokak, erakusketak edo filmaketak kasu—, halako jarduerak egiteko behar den baimen edo lizentzia eduki gabe”.

“26. Animaliak edukitzea beren arduradunek haien gaineko gainbegiratze-kontrol egokia egin ezin duten tokietan. Salbuesita geratzen dira 5. artikulua 3. eta 3. bis apartatuetan definituriko animaliak, bere jardueraren berezko eginkizunak betetzen ari diren bitartean”.

**Azken xedapen bakarra.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar-munean hartuko du indarra.

## **Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezkeen Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2022ko maiatzaren 6ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **1. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA GEROA BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren laugarren apartatua aldatzeko zuzenketa, zeinaren bidez 12. artikulua aldatzen baita, oraingo 5.c) apartatuaren ondotik 6. apartatu berri bat gehituta, honakoa:

“6. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasueta-ko batean elkarrekin suertatzen badira zenbait onuradun, kalte-ordainketari dagokion zenbatekoaren banaketa honela eginen da:

a) Kasua bada 5.a) apartatuan jasotzen dena, kopurua erdibanatu eginen da, erdi bat dagokiola legalki banandu gabeko ezkontideari edo elkarbizitza-partaideari, eta bestea seme-alabei. Azken erdi hori zati berdinetan banatuko da.

b) Kasua bada 5. b) apartatuan jasotzen dena, kopurua zati berdinetan banatuko da ahaidetasun-lotura bereko pertsonen artean.

c) Kasua bada 5.c) apartatuan jasotzen dena, kopurua zati berdinetan banatuko da batera suertatzen diren onuradunen artean”.

Zioak: Hobekuntza teknikoa.

## 2. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA GEROA BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren laugarren apartatua aldatzeko zuzenketa, zeinaren bidez 12. artikulua aldatzen baita.

“7. Artikulu honen ondorioetarako, pertsona batek zenduarekiko mendekotasun ekonomikoa duela ulertuko da heriotza-unean horren kontura bizi bazen osoki nahiz partzialki eta ez zuen eskuratzen, urteko kontaketa, une hartan indarrean zegoen errenta-adierazle publikoak urteko kontaketa ere zeukan zenbatekoaren ehuneko 150 baino gehiagoko edozein izaeratako errenta edo diru-sarrerarik”.

Zioak: Orain arte 12. artikuluko 6. apartatua zenaren zenbakia aldatu eta 7. apartatua izatera igarotzen da, edukiaren bestelako aldaketarik gabe.

## Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa.

### AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2022ko maiatzaren 13ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 1. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA EH BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

«1. artikulua. Kanona sortzea eta haren izaera juridikoa

1. Errepide-erabilerearen gaineko kanona Nafarroako Ogasun Publikoaren baliabide gisa sortzen da, aplikazio-xedetzat duena Nafarroako Edukiera Handiko Bideen Sareko zenbait azpiegituraren erabilera. Horrela bildutako dirua bideratuko da

foru lege honek jasotako helburuak betetzera ez beste ezertara.

2. Kanon hau azpiegitura-erabileragatiko tasa bat da, ibilgailu astunentzat, Salgai-garraioko ibilgailu astunei zenbait azpiegitura erabiltzeagatik karga-tasak aplikatzeko ekainaren 17ko 1999/62/EE Zuzentarauaren 2.1.8) artikuluan aurreikusitako definizioaren arabera, eta izaera publikoko ondare-prestaziotzat hartuko da, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

3. Erabilera-kanonaren ordainarazpena eta kudeaketa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eginen ditu, dela berak zuzenean, dela berak xede horretarako eratzen duen sozietate publiko baten bitartez, eta kanon horren diru-bilketak erabiliko da bide-mantentze eta ustiapenerako ekintzak finantzatzeko, bai eta azpiegitura berriak eraiki eta horiei loturiko zerbitzuak ezartzeko ere, zeinak, kasua bada, Nafarroako Errepide Sareari atxikiko baitzaizkio. Kanona atxikia daukan bidea bera mantentzetik eratorritako beharrianak ase direlarik, zilegi izanen da diru-sarreraren parte bat bideratzea ingurumenaren babeserako neurrietara edo garraio-sareen sustapen orekaturako neurriak aztertu eta ezartzera.

4. Sozietate publiko bat eratuko balitz, horretara bideratuko dira bai borondatezko epean kudeaturiko kanona, bai epe exekutiboan lorturikoa».

Zioak: Izenburua aldatzen da erabili beharreko legegintzako teknikari hobeto egokitzen zaion testua taxutzeko.

2. puntua gehitzen da era zehatzagoan adierazteko kanonaren izaera juridikoa, Europako zuzentarauari hobeki egokitutakoa testua izan dadin.

## 2. ZUZENKETA

### GEROA BAI

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«3. artikulua. Sortzapena eta ordainketa.

1. Erabilera-kanona sortuko da kanon hori atxikita daukan bidea edo bide-zatira sartzeko unean eta ordainketa eginen da sortu eta hurrengo 60 egun naturalen barruan.

2. Erabilera-kanona ordaintzera behartuta daude kanon hori atxikita daukaten bideetatik zirkulatzen duten ibilgailu astunen titular diren per-

tsona fisiko edo juridikoak. Halako ibilgailutzat joko dira motordun ibilgailuak edo ibilgailu artikulatuen multzoak, gehieneko masa baimendua 3,5 tona baino handiagoa izanda errepidezko salgai-garraioko baizik ez direnak edo horretarako baizik erabiltzen ez direnak.

Kanona ordaintzetik salbuetsita daude administrazio publikoaren ibilgailuak edo azpiegituraren kontserbatze- eta mantentze-lanen esleipen-hartzaile diren enpresenak, bai eta larrialdi eta istripuetakoak eta Europar Batasuneko araudiaren arabera salbuetsita daudenak ere.

3. Ibilgailuen detekzio, identifikazio eta kanongozpenenerako, iragaitza askeko sistema ireki bat ezarriko da, ibilgailu-gerarazpenik gabekoa.

4. Kanona ordaintzeko, erabiltzaileek baliabide teknikoak eduki beharko dituzte, baldintza operatiβοetan erabilera ahalbidetuko dutenak; edo bestela halako informazioa eman beharko dute non modua emanen baitu matrikula-zenbakia ordainbide bati lotzeko, bide-administrazioak argitaratutako web informazioari jarraikiz.

Zehazki, honako ordainbide hauek onartzen dira:

a) TAG gailua.

b) Erregistro telematikoa, bide-administrazioak paratzen duen webgunearen nahiz gara daitezkeen beste sistema telematikoko batzuen bitartezkoa. Banku-txartela edo erregistro telematikoa etorkizunean onartzen dituen bestelako ordainbide batzuk zehaztuko dira.

Zioak: Zuzenketaren helburua da, batetik, kanona ordaintzera behartuta dauden ibilgailuei eta salbuetsita daudenei buruzko bi alderdiren hobekuntza teknikoa.

Bestalde, zehazten da kanonaren ordainketa sortu eta hurrengo 60 egun naturalen ordainduko dela, eta horrela hari lotutako ibilgailuen ordaintzeko epea luzatu eta malgutasun handiagoa ematen da.

**3. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA EH BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

«4. artikulua. Kanonaren zenbatekoa.

Erabilera-kanonaren zenbatekoa zehaztu eta eguneratuko da aintzat hartuta Europar Batasuneko araudi indarduna eta, bereziki, ondoko irizpideak:

a) Errepidea erabiltzean eginiko ibilbidearen luzera.

b) Azpiegituraren eraikitze- eta narriatze-gastuak, ingurumeneko elementuengatiko gastuak barne.

c) Finantza-askitasuna, halakoa non, foru lege honetan adierazitako beste baliabide batzuekin batera, bertan aurreikusitako helburuak lortu ahal izanen baitira.

d) Erabiltzaileentzako tratu-berdintasuna, erabilera-mailaren arabera.

e) Diskriminazio eza, ez zuzenik, ez zeharkakorik.

Zioak: Testua doitzen da eta tartea uzten da, besteak beste, etorkizunerako jarduketak kontuan hartzeko, esaterako, errepide berrien eraikuntza.

**4. ZUZENKETA**

**GEROA BAI  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Laugarren artikuluari apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«Halaber, kanonaren zenbatekoa zehazteko ibilgailuen ondoko sailkapena hartuko da kontuan:

a) Astunak 1: gehieneko masa baimendua 3,5 tona baino handiagoa eta 12 tona edo txikiagoa duten ibilgailuak.

a) Astunak 2: gehieneko masa baimendua 12 tonabaino handiagoa duten ibilgailuak.

Zioak: Zuzenketa honen bidez kanonaren zenbatekoak bereizi nahi dira, ibilgailu astunak tonajearen arabera sailkatuta.

**5. ZUZENKETA**

**GEROA BAI  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“5. artikulua. Kanona ez ordaintzea.

1. Erabilera-kanona horretarako ezarritako epean ez bada ordaintzen, kanona kudeatzen duen entitateak ordain-eskea aurkeztuko die interesdunari eta bide-administrazioari, sozietate publikoa izanez gero, eta kudeaketa-errekargu bat gehituko dio. Kudeaketa-errekargua zorretan utzitako kanonaren ehuneko bat izanen da, eta honela kalkulatu da:

a) Ordaintzeko epea amaitu eta hurrengo hila-betean, % 5eko errekkargua ezarriko da.

b) Lehenengo hilabetea amaitzen denetik ordaintzeko epea amaitu eta hiru hilabete bete arte, % 10eko errekkargua ezarriko da.

a) Ordaintzeko epea amaitu eta hiru hilabete betetzen direnetik, % 20ko errekkargua ezarriko da.

Desadostasuna egonez gero, interesdunak aurkako jarrera bide-administrazioari aurkeztuko dio, eta administrazio horrek ebatziko du auzia.

2. Aurkako jarrerarik aurkeztu ez eta erabilera-kanona eta errekkargua ez badira ordaintzen interesdunari jakinarazpena egin eta bi hilabeteko epearen barrenean, kanonaren ordainarazpenaz arduratzen den balizko kudeatze-entitateak salaketa aurkeztuko dio bide-administrazioari, zehapen-espeditatea has dezan –edota kanonaren ardura duen administrazioak ofizioz hasiko du– eta ordainkizun den zorra gehi ordaindu gabeko kudeatze-errekargua eska ditzan bidezkoak diren diru-bilketako prozedurak erabiliz, premiamendubidea barne.

3. Frogabide gisa, zilegi izanen da edozein sistema edo bitarteko tekniko, mekaniko edo irudigintzakoa erabiltzea, azpiegituran paratutakoa, ibilgailuak argi eta garbi identifikatuko dituen. Irudi hori frogabidetzat hartuko da zehapen-prozeduran.

4. Kanonaren kudeaketa eta likidazioaren inguruan bide-administrazioak jaulkitako ebazpenen aurka, interesdunek administrazio-errekurtsua aur-



keztu ahalko dute, administrazio-prozedura erki-dearen arauetara jarraituz.

Diru-bilketako egintzak Nafarroako tributuarandi orokorrari jarraituz aurkatu ahalko dira».

Zioak: Zuzenketaren xedea da balizko ez-ordaintzeek errekargu bat izatea, ez-ordaintzea erregularizatzen den unearan araberakoa.

## 6. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA EH BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

6. artikuluko 2. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Datu pertsonal beharrezkoak dira detekzio-sistemaren atariak zeharkatzen dituen ibilgailuaren matrikularen zenbakia; atxikitako ordainbidea; igaraldiaren eguna eta ordua, eta ibilgailuaren titular den pertsonaren identifikazioa; kudeaketarako eta erabilera-kanonaren ordainketarako sistemako alta edo erregistratzea; halaber, informazioaren titular diren pertsonak eskatzen dituzten fakturak jaulkitzeko beharrezkoak diren datuak».

Zioak: Doikuntza bat egiten da zehazte aldera beharrezkoa den datu pertsonala matrikularen zenbakia dela eta ez irudia, jatorrizko testuan ageri den moduan.

## 7. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA EH BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Lehenengo xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

«Kanonari loturiko Nafarroako errepide sareko bide eta zatiak eta kanonaren zenbatekoa aurrerago zehaztea galarazi gabe, Nafarroako Gobernuak gaitzen da kanona kobratzen hasteko data finkatzeko, zeina ezin izanen baita izan 2023ko abenduaren 31 baino geroagokoa».

Zioak: Xedapen gehigarriaren testuaren aldatzea teknikoak, haren aplikazioa hobetze aldera.

## 8. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Azken xedapena aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

Foru lege honek indarra hartuko du «Nafarroako Aldizkari Ofizial»ean argitaratu eta biharamunearan. Halaber, bere eraginkortasuna etenda geratuko da Estatuko Administrazio Orokorrek errepideak erabiltzeagatik kanona egiazki ezartzen duen arte».

Zioak: Nafarroak badu eskumena Foru Komunitatetik igarotzen diren errepideak erabiltzeagatik ordaindu beharra erabakitzeke. Hala ere, zuzenketa hau aurkezten duen jarrera da eskumena ez dela baliatu behar Nafarroan bidesariak ezartzeko, saihestu nahi da Nafarroako herritarrak oraingoan ere gainera espainiarren aldean egoera okerragoan geratzea, hain zuzen ere autogobernu hori baliatzeagatik.

## 9. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA EH BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Hitzaurrea aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

«Hitzaurrea

Ekainaren 17ko 1999/62/EE Zuzentarauak, ibilgailu astunei bide-azpiegiturak erabiltzeagatik karga-tasak aplikatzekoak, adierazten duen bezala, lehiaren alorreko europar politikak asmozat dauka estatu kideetako garraio-enpresen arteko lehiako distorsioak ezabatzea, kobrantza-sistemak harmonizatuz eta azpiegituraren kostua garraiolariei egozteko bide ekitatiboak ezarriz, mugak ezarriz guztizko pisu zamadun jakin bat gairatzen duten ibilgailu industrialetara zerga-sistema nazionalak egokitzeari, ezarri beharreko karga-tasak ingurumen- eta errepide-eraginaren arabera bereiziz, bide desberdinak erabiltzeagatik tasa-ezarpenera onarturik, non eta tasak ez diren diskriminatzaileak, ez duten gehiegizko

formaliterik erakartzen eta ez duten eragozpenik sortzen, eta erraztasunak ezarriz pagamendua edozein unetan eta ordainbitarteko desberdinen bidez egin ahal izateko.

Xedatzen du tarifak kasuko azpiegitura-erabile-  
raren iraupenaren arabera beharko direla kalkulatu, eta ibilgailuek eragindako kostuei erreparatuta bereiziak izan.

Aipatu zuzentarauak eginiko araupetzearen xede dira, besteak beste, aipatzen dituen ibilgailuentzat ezarritako azpiegitura-erabileragatiko tasak, 7. artikulutik aurrera arautzen dituenak. Karga-tasaren ezartze horrek baldintzatu egiten du Batzordeari eginiko aurreiazko kontsulta.

Zehazki, Europar Batasuneko doktrinak aitortzen du ibilgailu astunentzako azpiegitura-erabileragatiko tasa egokia dela garraio-merkatuko lehia-  
ren distortsioak ezabatzeko, batetik; eta, bestetik, ingurumena babesteko eta garraio-sareen garapen orekaturako funtsak lortzeko. Horrenbestez, aipagai duguna azpiegitura jakin batzuk erabiltzetik eskuratzen den erabil-eskubide bat, zeinaren zenbatekoak zerikusia izan behar baitu kasuko bide-sarea eraiki, ustiatu eta garatzearen kostuekin. “Nork erabili, horrek pagatu” printzipioaren ildotik, tarifak bere egitekoa beteko du kostu horiek erabiltzaileei jasanaraziz, eta bidekontserbazioaren eta -kudeaketaren kostuak berreskuratu eta berrinbertitzea ahalbidetuko du.

LORAFNA-Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak ezartzen du Nafarroari

dagokiola, bere foru araubidea dela-eta, ibilbidea osoki Nafarroako lurraldean daukaten errepide eta bideen gaineko eskumen eskusiboa.

Nafarroak etengabe egikaritu ditu bere eskumen historikoak bide eta errepideen eraikitze, finantzatze eta mantentzearen alorrean, eta historian zeharreko jardun hori jasota agertzen da Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen zioen azalpenean. Aipatu eskubide historikoek Espainiako Konstituzio indarduneko lehen xedapen gehigarriaren babesa dute.

Nafarroako Errepideei buruzko 5/2007 Foru Legeak esparru juridiko berekia antolatzen du, are bide-jabari publikoaren gaineko jarduketan eta ustiapenaren finantzaketarako, kalitatezko bidez bitzu publikoa bermatzeko baliabideak bideratuz, 25.1 e) artikuluan xedatuz errepide-erabilerarako kanon bat ezarri ahal izatea.

Arau orokor gisa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zuzenean kudeatu eta ustiatu du bide-jabari publikoa, ahalmena badauka ere sozietate publiko bat eratzeko, xedatzen izan den duena Nafarroako Errepide Sarean sartuta dauden errepideen eraikitze, mantentze eta ustiapena kudeatzea, bai eta horien eremu funtzionalak eta zerbitzu-eremuak.

Esparru juridiko horretan kokatzen da arau berri hau».

Zioak: Hitzaurrearen zenbait alderdi zuzentzen dira, arautu nahi den errepide-erabileragatiko kanonean eragina duen Europar Batasuneko zuzentzura hobeto egokitzeko, ahal bada.

## **Foru Lege proposamena, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adieraztekoa.**

### **AKATS ZUZENKETA**

Akats bat atzeman da 2022ko ekainaren 13ko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakian, zeinaren bidez xedatzen baitzen Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko Foru Lege proposamenaren izapidetzea. Aipatu erabakia 2022ko ekainaren 14ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona hemen zuzenketa:

Erabakiaren bigarren puntuan, honako hau dioen tokian: “Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Herritarrekiko Harremanetako Batzordearen esku uztea”. Honakoa behar du: “Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordearen esku uztea”.

Iruñean, 2022ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onets dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan aipatu gaixotasuna dela-eta.**

**OSASUN BATZORDEAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko ekainaren 8an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onets dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan aipatu gaixotasuna dela-eta".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako Gobernua premiatzen du Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onets dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela.

2. Nafarroako Gobernua eta zehazki Osasun Departamentua premiatzen du diziplina anitzeko

erreferentzia-unitate bat sor dezan gaixotasun hori ikertzeko.

3. Nafarroako Gobernua eta zehazki Osasun Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak har ditzan Lyme gaixotasuna modu fidagarrian diagnostikatu eta tratatzeko, eta, halaber, Lyme gaixotasunerako eta harekin batera agertzen diren infekzioetarako erreferentzia-unitate bat sor dezan.

4. Nafarroako Gobernua eta zehazki Osasun Departamentua premiatzen du berriazko prestakuntza-ikastaroak antola ditzan osasun langileentzat, Lyme gaixotasunean esperientzia frogatua duten pertsonak eman beharko dituztenak.

5. Nafarroako Gobernua eta zehazki Osasun Departamentua premiatzen du gaixoen erregistro bat sor dezan Nafarroarako".

Iruñean, 2022ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gobernu Kontseiluan erabaki dezan “Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean” taldeartekoen XXVI. Konferentzian onetsitako adierazpena babestea.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko ekainaren 9an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gobernu Kontseiluan erabaki dezan “Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean” taldeartekoen XXVI. Konferentzian onetsitako adierazpena babestea”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

«Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Gobernu Kontseiluan erabaki dezan “Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean” taldeartekoen XXVI. Konferentzian onetsitako adierazpena babestea, honela:

Erabakitzea, eskaera-mailarik gorenean, honakoa:

- Adieraztea Sahara Mendebaldea nazioarteko zuzenbidearen mende dagoen lurralde autonomo bat dela, sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan eta, hartara, haren okupazio ilegala amai dadin eta Saharako herriak autodeterminazio eskubidea balia dezan exigitzen du.

- Erreferentziazat jotzen jarraitzea Auzitegi Nazionalaren autoa, zeinaren bidez Espainia de iure Sahara Mendebaldearen “potentzia administratiboa” dela adierazten baitu.

- Marokoko Erresumari exigitzea saharar preso politiko eta kontzientziakoak berehala aska ditzan, eta giza eskubideen urraketak amai daitezen berak kontrolatzen dituen espetxeetan, presoen osotasun fisiko eta psikikoa bermatuz. Halaber, familiei elkartasuna helaraztea. Era berean, salatu egiten ditugu lurralde okupatuetao sahararren giza eskubideen urraketa.

- Nazio Batuak premiatzea luzamendutan ibili gabe susta dezaten Sahara Mendebaldeko gatazkaren konponbide iraunkor eta bidezkoa, zeina Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubidea gauzatzetik helduko baita. Eta Genevan den NBEko Giza Eskubideen Kontseilua premiatzea, giza eskubideen errelatore bat izenda dezan Sahara Mendebalderako.

- Salatzen jarraitzea Marokoko Gobernuak Mendebaldeko natur baliabideen espoliazioa egitea, epaiak epai, eta zonaldean ari diren enpresei exigitzea nazioarteko zuzenbidea eta saharar populazioaren eskubideak errespetatzea, interesdunak (enpresak eta herrialdeak) premiatuz Saharako herriaren ordezkari zilegiekin (Fronte Polisarioa) negoziazioak edukitzera.

- Berrito adieraztea Sahara Mendebaldean bizi den egoera larria ikusita, Minursok Sahara Mendebaldean dauzkan eginkizunak zabaldu behar dituela. Hortaz, Nazio Batuak premiatzen ditugu Misionari ahalmena eman diezaion sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babesteko lurralde okupatuetan.

- Europar Batasunari berriz ere exigitzea Marokoko Erresumarekiko Lehentasunezko Akordioan giza eskubideak errespetatzeari dagokionez ezarritako klausula betearaz dezan.

- Saharar Emakumeen Batasun Nazionalarekiko gure lankidetzaren politikoa indartzea, haiek errefuxiatuen kanpalekuetan betetzen duten zeregin oinarrizko eta erabakigarria dela-eta. Eta, aldi berean, dei egitea haien ikusezintasun-egoerarengatik, giza eskubideen urraketaren biktima baitira. Aipamen berezia egin beharra dago Sultana Jayari buruz.

- Erakunde publikoak premiatzea laguntza solidario eta humanitarioa areagotu eta ematen jarrai dezaten, hala Tindufeko kanpalekuetako errefuxiatuei nola lurralde okupatuetao sahararrei.

Espainiak Mendebaldeko Saharako egoeran daukan erantzukizun historikoaz eta politikoaz jabetuta, Espainiako Gobernuari berriz ere dei egitea, honako hau egiteko:

- Marokoko Erresumari exigitzea Sahara Mendebaldeko lurralde okupatuetan giza eskubideak zorrotz errespetatzeko eta sahararrek pairatzen dituzten eskubide-urraketak bukatzeko. Eta halaber premiatzen du tinko lan egin dezan Nazio Batuen eta Europar Batasunaren barruan, Minursoren eginkizunak heda daitezen Mendebaldeko Saharan giza eskubideak betetzen direla zaintzera eta haiek babestera.

– Aurrerabidea egitea Fronte Polisarioaren Espainiako Ordezkaritzari estatus diplomatikoa emateko sahararren ordezkari zilegi bakar gisa, Nazio Batuen Erakundeak aitortzen duen moduan.

– Areagotu dadin saharar herriarekiko lankidetzatza eta harentzako laguntza humanitarioa, bai errefuxiatu-eremuetan bai lurralde askatueta, kezka egiaztatu baitu Lankidetzarako Espainiako Agentziak bere ekarpenak murriztu egin dituela azken urteotan. Bai eta Europak Mendebaldeko Saharara bideratutako funtsak areagotu daitezten ere.

Azkenik, gizartearen papera dela-eta, honako hau adieraztea:

– Hedabideak premiatzen ditugu gizarteak ematen dion garrantzi bera eman diezaioten Saharako gatazkari. Eta Saharako herriaren kausarekiko pertsona solidarioei dei egiten diegu Sahara Mendebaldearen egoeraren berri eman dezaten eta sala dezaten sare sozialen bitartez.

– Arlo unibertsitario, judizial eta politiko-administratiboak premiatzen ditugu, lanean jarrai dezaten argitze aldera Sahara Mendebaldean gertatzen diren giza-eskubideen aurkako jarduketak.

– Bereziki Cervantes Institutua premiatzen dugu, indartu ditzan lotura kulturalak eta espainiar hizkuntzaren hedapena, Sahara Mendebaldeko bigarrena baita, errefuxiatuen kanpalekuetan presentzia edukiz.

– Eskerrak ematen dizkiegu egunero-egunero saharar herriarekiko adiskidetasunean diharduten elkarte, federazio eta kolektibo solidario eta sozialei, helburu bakarra izanik askatasunezko etorkizuna lortzea herri anaiarentzat.

– Aitortu egiten dugu haurrei harrera egiteko “Oporrak bakean” programaren eta “Madrasa” proiektuaren funtsezko garrantzia, saharar familiarikiko maitasun- eta hurbiltasun-harremanen eta solidaritatearen erakusgarririk behinena izaki».

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak izendatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko ekainaren 9an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“**1.** Honako pertsona hauek Nafarroako Parlamentuak hautatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide izendatzea:

- José Ángel Andrés Gutiérrez jauna
- Pilar Aramburo González andrea

– Mercedes Ferro Montiu andrea

– Javier Onieva Larrea jauna

– Juana García Santamaría andrea

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M. izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzea.**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M. izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzeko epea **2022ko**

**ekainaren 23ko eguerdiko 17:30ak arte** luzatzea. (10-22/ELC-00006).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias